

Karkara

45. ZENBAKIA

ORIO ETA AIAKO ALDIZKARIA

1995eko AZAROA

45A

Elkarritzeta

J.M. Ostolaza 'Xalbardin'

Erreportajea

Joan direnentzat irripana

Gazte Festa'95

errepikatu beharreko jaia

Euskaldunon Egunkaria sortu arte
euskaldunak
eskubide bat gutxiago zeukan.
Bost urtetik hona, zu, euskalduna,
euskaldunago bizi zintezke.
Ez bakarrik informazioa
euskaraz ematen zaizulako.
Ez bakarrik Euskal Herri guztia
eskura ematen zaizulako. Ez.
Euskaldunon Egunkariak
normalago egin dizu errealtatea,
errealtatea bera beste modu batean
eskaintzen dizulako.



Euskaldunon
Egunkaria
Urriaren 21ean
berriturik...

azala
eta mamia!

KarKara

Herriko Plaza, 1
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90
ISSN
1132-1105
Tirada
1.200 ale

Erredakzio-taldea

Eba Gaztañazpi
Ana G. de Txabarri
Ana Iturain
Iñaki Iturain
Nere Manterola
Jabier Zabaleta

Aiako Erredakzioa

Eli Lasa
Idoia Zarautz

Publizitate-arduraduna

Ana Iturain

Kolaboratzialeak

Jose Almundoz
Itziar Urretabizkaia
Orioko Intsumiso Taldea

Azken orrialdeko marrazkia

Julian Toquero

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- | | |
|----|--|
| 4 | Gutunak |
| 5 | Herrian galdezka
<i>Santu Guztien egunean kanposantura joaten al zara?</i> |
| 6 | Herriko kontuak |
| 10 | Kirolak |
| 13 | Zine-kritika: <i>Los puentes de Madison</i> |
| 14 | Iritzia: <i>Orioko Intsumiso Taldea</i> |
| 15 | AIA
Berriak
Elkarritzeta: <i>Jose Antonio Iruretagoiena eta Idoia Aldai</i> |
| 19 | Erreportajea
<i>Joan direnentzat irriparra</i> |
| 22 | Elkarritzeta
<i>Jose Mari Ostolaza "Xalbardin"</i> |
| 24 | Denetik pixka bat |
| 29 | Kolaborazioa
<i>Lorazaintza: udazkeneko eginbeharra</i> |
| 30 | Azkena |

1995eko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauetako zenbakia baterako balio dute. Urtean hamar zenbakia argitaratuko ditugenez, zenbakia guztieta beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Orioko hondartzako ordenamendu-proiektua dela-eta

Antilla ingurua oso toki maitea izan du beti gure herriak. Inguru horretako ordenamendua egiteko dago oraindik, nahiz eta, haueskunde bezperan, Udalak maketa eder bat saldu zigun, guztia egina balego bezala. Aztertzen hasita, zera aurkitzen dugu: ia guztia (kanpina, kirol portua eta abar) — itsas ondoko pasealekua ezik — oraindik onartzeo dagoela. Hori horrela izanda, beharrezkoa iruditu zaizten zenbait azalpen egitea Orioko herriari gaia argitzeko, herritarrek kontzientzia aktiboa har dezaten eta, guztion artean, komenigarriena zer den erabaki dezagun.

Herritarren partehartzea gauzatzeko modurik onena ideia-lehiaketa bat egitea litzateke, proiektua egiteko garaien kontuan hartu beharreko ezaugarri eta beharrak aztertzeo. Ideia-lehiaketa hau inkesta publiko bat izan daiteke, alderdi, elkarte eta abarrek prestatutakoa. Hori epe motzean egindaietako eta, ondoren, inkestan azaldutako beharrak oinarrian hartuz, teknikari eta profesionalentzako lehiaketa bat ireki beharko litzateke herriak adierazitako beharrei erantzun tekniko bat emateko. Horren guztiaaren ondoren, Udalak erabakiko luke bere ahoikularien (arkitektoa, idazkaria...) laguntzaz.

Hori litzateke, nire ustez, segitu beharreko prozedura eta ez egin dena: maketa egiteko miloi batzuk gastatu eta, bestalde, herriko arkitektoak eta idazkariak izenpetutako eta Alkateak eta zinegotziak onartutako aurreproiektu

batean 6 milioi gastatu.

Espazio handietan espezializatutako 6 arkitektoi miloi bana eman izan baliote proiektu bat egiteko, sikeria 6 proiektu izango genituen baten prezioan. Gero obraren zuzendaritza emango litzaiok proiektu irabazleari eta horrekin diru-sari ederra lortuko luke.

Kargu publikoetara iristen direnean, ek (jarri nahi duzuen hitza) ia herritar guztia marginatu eta 'konpresa' bihurtzen dituzte.

..... k (jarri nahi duzuen hitza) ito egiten ditu herriaren ilusio eta ekimena. Horrek herritarren indiferentzia sortzen du eta, gerora, herrian gertatzen denarekiko arduragabekeria.

'Belaunaldi honek, gaiztoen hitz eta ekintza gorrotagarriengatik damutzeaz gain, damutu beharko du, baita ere, zintzoen isiltasun izugarriagatik'.

ihardueraren muina euskararen normalizazio soziala izango da.

b) Aldarrikapen eta hizkuntz burukaren mamikuntza ekintza bide praktikoan gauzatuko da.

d) Euskal Herrian Euskaraz elkartek erahateko autonomia izango du edozein indar politikorekiko.

e) Elkarte honen barne eta kampo ihardueretako hizkuntza bakarra euskara izango da.

f) Elebitasun sozialaren inguruko mito guztia arbulatzen badituga ere, ez dugu balorazio bera norbanakoaren hizkuntz egoeraz.

g) Elkarte honen ekintza-edadura Euskal Herri osora zabalduko da. Hau da, Ipar eta Hego Euskal Herria.

Guzti honetaz interesatua dagoen eta euskararen onerako lan pixka bat egiteko prest legokeen guztia, azal bedi azaroaren 10ean gaueko 9:30 etan Xurrumurruko lokalean.

TALAI

ORIOKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ



Euskal Herrian Euskaraz-en deialdia

Orion, Euskal Herrian Euskarazeko talde berria sortzeko asmoa dela eta, deialdi bat zabaltsen do kolaboratzeko prest dagoen edozeinentzat. Nolabait jakinaren gainean jartzeko, esan behar da Euskal Herrian Euskaraz-ek buruzen dituen iharduerak punto minimo hauetan oinarritzen direla:

a) Elkartearen izaera berezia aldarrikatzailea da. Bere egiteko ez da izango hortaz kulturaren edo teknikaren munduan euskararen 'corpus' plangintza taxutzea: egiteko hori beserren esku urtia, bere

Kolaboratzaile bilaketa

KARKARAko errealak jo-taldean parte hartu nahi baduzu edota lan konkreteran lagundu nahi badiguzu, jakin ezazu gero handiz harnuko dugula eman desaketen laguntza gertia.

KARKARAko kolaboratzailea izan nahi baduzu, nahikoa dazu erredakcio-taldeko elkarzinekin harremanetan jartzera.

KARKARA TAIDEA



GOIZ EKO

* KAFETEGIA

pasteleriko

* IZOZKIAK

enbarguak

* CROISSANTEGIA

hartzen dira

Alto Lenkundi, 33
Telefonoa: 83 28 55

Karkara
TAIDEA

Santu Guztien egunean kanposantura joaten al zara?

Azaroaren 1ean, Santu Guztien egunean, bestela hutsik egoten diren kanposantuak jendez eta lopez gainezka izaten ditugu. Gure herrian ere horrela izaten da, baina kanposantura joateko ohituraren arrazoia jakin nahi izan dugu, eta hona hemen erantzunak.



ESTER LERTXUNDI

61 urte

Santu Guztien egunean gustatzen zait meza entzutea kanposantuuan. Gero han asko ikusten da loreen kontu hori, baina nik ohitura hori ez daukat, aldian behin mezak eta errezoak bai, baina loreak eramatea gehiegia bilatzen dut, baina entierrotan ere.



JOXE M. MAKAZAGA

35 urte

Ohitura hori familiar baguen eta jarraitzen dugu ohiturrekin. Normalean urtero joaten gara kanposantura buelta bat ematera. Mezatara ez, baina hara joan eta lore batzuk uzten ditugu bai Santu Guztietan eta baita beste urte garaietan ere.

ARANTXA MIRALLES

32 urte

Urtero joaten naiz kanposantura buelta bat ematera, han nire aita eta izeba-osabak daudelako.

Guk loreak eramatenditugu, nire ahizpak erosten ditu, eta ez zait dirua alferrik gastatzea iruditzen.



PAKO MARTINEZ DE LA HIDALGO

58 urte

Batzuetan joaten naiz eta besteetan ez, segun ze gogoa daukadan hara joateko, baina ohitura txikia daukat.

Loreak nik ez ditut eramatzen, baina nire andreak bai.



Orioko Ogia



IPARRAGIRRE

AUTOZERBITZUA

Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15



Haurrentzako oinetakoak

San Nikolas 9, behe
Tfnoa: 83 28 05

LIZASO

ERLOJU eta BITXI DENDA

Eala, 3

Tfnoa: 83 10 90

URANGA BÜRDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
Tfnoa: 83 12 36



Gazte Festa handia ospatu zen urriaren 29an Antilla inguruan

Jai-giro alaia izan zen nagusi egun osoan

Euskaraz Gazte batzordeak antolatuta, 'Gazte Festa 95' izeneko festa handia ospatu zen urriaren 29an Antilla inguruan.

Gazte Festan era guztietako aktibitateak egon ziren: musika eta dantza emanaldiak, eskolarteko olinpiada, bertsolariak, txotxongiloak, rokodromo, haizezko gaztelua, haurrentzako tailerrak, pilota-partiduak, harrijasotzaileak...

Horretaz gain, hainbat salmenta-postu ere bazeuden: Euskaraz Gazteko materiala saltzeko bat, EHEko (Euskal Herrian Euskaraz) beste bat eta Ostargi emakume-taldeak jarritakoa. Festarako egindako Euskaraz Gazteko polo eta sudadera guztiak bukatu egin ziren eta EHEko gazteek ere materiala oso ondo saldu zutela esan zuen.

Festa-giro ederra

Aurten antolatu da lehenbiko aldiz Gazte Festa eta antolatzaleak oso pozik dute herriko jendeak festari egin dion harrera onagatik. Eguraldia ez zen zeharo ona izan: haize hotza zebilen eta, boladetan, euria egingo zuela ematen zuen baina azkenean eutsi egin zion eta festa normaltasunez bukatu zen.

Antilla inguruan prestutako hiru festaguneetan gazteak izan ziren nagusi. Parte hartzeari dagokionez, erabateko arrakasta izan zen Gazte Festa, herrian dauden talde gehienek egin baitzitzen beren aportazioa festari.

Haurrek ere izan zuten non gozatu: goiz parteak Eskolarteko Olinpiadan aritu ziren asko eta asko eta, arratsaldean, berriz, txotxongi-

loak antolatu zituen Ikastolak eta txokolate-jana Zarautza eskolak. Bestalde, haurrentzako tailerrak egon ziren egun osoan autopista azpian, Dilistak eta eskolak antolatuta.

Naburmentzekoa da festa-hurbildu zirenek antolatzaleei edoztaran laguntzeko erakutsi zuten prestutsuna. Esate baterako, bazkiritarako mahaiak tokiz mugitu behar zirela-eta, Xabier Sukiak megafoniaz jendea behar zela abisia eman zueñean, segituan azaldu zen boluntario-mordoa garrailaketa-lanerako.

Tortilla-txapelketa Goizekorentzat

Tortilla-txapelketa bat ere antolatu zen eta Goizeko ta-

bernak irabazi zuen tortilla-rik orijinalenari emandako lehen saria. Bigarrena Bordaxorentzat izan zen eta hirugarrena, berriz, San Juan Biderentzat. Tortilla-txapelketan ere herriko tabernari eta jateixe-jabe gehienek hartzutzen parte. Guztira 48 tortilla egin zituzten, tabernari bakotzak bi.

Lehiaketako tortillez gain, herriko bost sozietatetako (San Juan Elizpe, Arkaizpe, Gure Etxea, Aldapa eta Ballea) baziideek egindako marmitakoa jan zuten herribazkarian bildu ziren 370etik gora lagunek.

Antolaketa-akatsak

Lehenbiko aldia zen Euskaraz Gazte batzordeak horrelako festa handia antolatzen zuela eta antolaketa-akats batzuk ere izan ziren. Ikastolako txotxongiloak, esate baterako, orduerdi beranduago hasi ziren generadore bat gasolioa bukatu zitzaiolako.

Horrelako beste batzuk ere izan ziren baina, jeneralean hartuta, jendea prest zegoen edozein akats barkatzeko eta giro ona nagusitu zen.

Kantaldi-erromeria bukaeran

Festari kantaldi-erromeria batekin eman zitzaien bukaera.

Lehenbizi Imanol Urkizuk kantatu zuen, gero Oihana Alkorta gazteek eta, bukatzeko Azkonobieta eta Jokin jox zuten trikitixa.

Bertan jaso genituen iritzien arabera, errepikatzeko moduko festa iruditu zitzaien parte-hartzaile gehienei.

Urretabizkaia pilotaria misiotara joango da

Egunkari batean pilota utzi eta habituak hartu behar zituela jartzen zuen arren, hau ez da horrela, Jesus Mari Urretabizkaia objetoreoa da, eta egunkarian irakurri zuen Misioetan lan egitea objeto-reen prestazio soziala bezala onartzen dela. Berak, beti izan du Misioetara joateko gogoa eta notizia honek bultzatuta informatzera jo zuen. Orain informatzen besterik ez da ari, baina asmoa badu noizbait joateko eta ez du pilota uzteko asmorik,



Andoaingo "Inttui" abesbatzak kontzertu bat eskaini zuen Orion joan den urriaren 21ean arratsaldeko 8etan. 16-22 urte bitarteko gaztez osatutako abesbatza hau 1993an sortu zen.

Komertzioetan euskara bultzatzu nahi du Udalak

Iaz oso erantzun ona izan zuen "Euskara Merkatal Mundura" izeneko programari segida eman nahi dio Udalak. Programa horrekin hiru helburu lortu nahi dira: lehena, Orioko komertzioetan euskararen presentzia handitzea. Bigarrena, komertzioetako enplegatuaren euskara maila hobetzea eta hirugarrena, guztiz euskaraz funtzionatuko duten komertzioen nukleo bat osatzea.

Salatxo abesbatza Iparraldera

Salatxo abesbatzak arrakasta handia lortu du orain dela bi urte sortu zenetik. Hori dela-eta, gonbidapena jaso du Iparraldeko Abesbatzen Topaketan parte hartzeko. Iparraldeko abesbatzek urtero egiten dute topaketa beren arteko harremanak indartzeko eta urtero gonbidatu ohi dute hegoaldeko abesbatza bat. Aurtengo topaketa Hazparnen (Lapurdi) izango da azaroaren 12an.

Topaketa arratsaldez izango da. Iparraldeko koruek abesti pare bana kantatuko dute eta Salatxok, berriz, kontzertu txiki bat eskainiko du. Bukaera emateko Bruckner-en *Gradual* abestia kantatuko dute abesbatza guztiak.

Bestalde, Inttui abesbatzak Oriora egindako bisita bueltatuz. Andoainen eskainiko du kontzertu bat Salatxok abenduan.

ZUMINTZA

- Teapaindegia - Estetika
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI,2

TFNOA 83 10 86

RAMIRO

Telefona: 83 10 48



K2

IB SELLATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

Oriotarrak telebistan

Asier Gozategi, Iñaki Arruabarrena eta erdi oriotarra den Oier Sarasua Txiskola programan izan ziren, eta txiste ugari kontatu zuten arren ez zuten irabazi. Bestalde, programa berean Pako Alberdi eta Iñaki Olliden atera ziren txiste kontatzen, baina ez lehiakide gisa. Aurreko batean, Txiskolan baita ere, Jose Luis Korta epaimahikide izan zen.

Bestetik, Nora Makazaga Arralden atera zen. Norak Maria Luisaren papera egin zuen, eta esketx horri esker chun mila pezeta irabazi zituzten.

ONCEko 50 milioi gurera

16.453 zenbakiak 50 milioi utzi zituen Orion. Urriaren 18an Lontxo Portularrumek saldu zuen zenbaki sartua. Hau ez da sari nagusi bat banatzten duen lehendabiziko aldia, 1993ko urtarrilaren 29an 450 milioi banatu baitzituen. Dena den, milioi guztiak ez ziren Orion geratu Palencian bizi den Puertastar batek 12 milioi terdi eraman baitzituen bere herrira.



7 eta 13 urte arteko ehun haur bildu ziren Txurruka kanpamenduan

Orioko ehun umek Txurruka kanpamenduan asteburua pasatzeko ankeria izan dute. Bigarren urtea da Dilistik taldeak horrelako ekimena aurrera eramatzen duela, eta urtero antolatzeko asmoa dute. Orain arte kurtso hasieran egin da, baina pentsatzen ari dira hurrengo urteetan bitan egitea, kurtso hasieran eta bukaeran.

Haurrek primeran pasa dute, udalekutan bezala jolasak, barrakak, irteerak eta abar antolatu baitituzte beraiekin egondako hamabost begiraleek. Asteburua bertan pasatzeko bi mila pezeta ordaindu behar izan dute.

AJTZONDOKO

83 27 00

JATETXEA

KOLON TXIKI

* PINTXOAK * KAXUELITAK
* EGUNERO MENUA

83 00 44/13 20 26

Herriko plaza, 4

TALAI

AHOLKULARIAK, S.L.

ASESORIA
FISKALA, LABORALA,
JURIDIKOA, KONTABLEA

Iñaki Olariaga Larrañaga

Eusko Gudari, 50-B-1.E

Tfnoa.-Faxa: 13 37 20

Bi oriotar gregoriano kantatzen

Koro Easok Gregoriano talde bat sortu du eta bertan, Demetrio Esnaola eta Antonio Campos daude. Dagoeneko hiru kontzertu eman dituzte, Gaignot-en, Donostian eta Elgoibarren. Gabonetarako disko bat aterako dute.

Katekistak behar dira

Urriaren 7an ospatu zen Haurren mezarekin eman zitzaion hasiera katekesiari. Esan digutenez katekistez urri dabilta, eta lan horretarako norbait prest balego gusto handiz onartuko dute.

Antzerki tailerra

Joan den ikasturtean hasitako antzerki-tailerrari jarrapena emango zaio aurten. Astean ordubetekoa izango da eta bi talde egingo dira: 10-13 urte bitartekoentzat eta 14 urtetik gorakoentzat.

Ikastaroa azaroaren erdialdean hasiko da eta Parte hartu nahi izanez gero Udal-Etxeko Euskara Zerbitzuau eman behar da izena azaroaren 10a baino lehen. Informazio gehiago 83 00 28 telefonoan.



50 lagunetik gora ari da euskara ikasten Udal Euskaltegian

Orioko Euskaltegiak jende asko mugitzen du, herriaren tamainaren proportzioan. Aurretengo matrikulazioak, hala ere, orain arteko markak hautsi ditu eta inoiz baino ikasle gehiago ari da euskara ikasten gure herrian.

Guztira 5 talde sortu dira, 3 euskalduntze mailakoak, bat alfabetatzeko eta beste bat EGA mailako. Batez beste, 10 lagun baino gehiago ari da talde bakoitzean.

Alfabetatzeko eta EGA mailako eskolak arratsaldean ematen dira eta euskalduntze mailakoak, berriz, bazkalondoko garaian. Aurretengo hiru irakasle ari dira euskara-eskolak ematen: Marisa Arruabarrena eta Eba Gaztañazpi oriotarrak, alde batetik, eta Olatz Odriozola azpeitiarra, bestetik.

Argazkian euskalduntze mailako ikasleak ageri dira —beno, ostiral hartan piper egin ez zutenak behintzat, bai— beren irakasleekin.



Denda Telefaxa: 13 10 88

Almazena Tfnoa: 13 25 33 Faxa: 83 57 01

◆ MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK

◆ SUKALDE EKONOMIKOAK


ORIO

Auto Eskola

Telefona: 83 57 19

ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA

Lasaitasuna eta giro ona

Bi judoka Milanen

Iker Ostolazak eta Ibai Peñak urriaren 6, 7 eta 8ko asteburua Milanen eman zuen naziourteko judo txapelketa jokatzen Euskal selekzioarekin. Iker Ostolaza senior mailan 86 kilo baino gutxiagokoetan hirugarren geratu zen eta Ibai Peña, berri, 55 kilo baino gutxiago eta 18 urte baino gutxiago zituztenetan bigarren geratu zen.

Ikerrek eta Ibaiek autobusen lo egin zuten eta jana beren poltsikotik ordaindu behar izan zuten.

Indar-Gymen judo irakasten duen Ibaiek azaroaren lehen astebukaean Espainiako Txapelketa jokatuko du Irunean, orain arte Madrilren jokatzen bazeen ere. Ibaiek futbola eta arraunaz aparte, jendeak gainerako kiroletan ere interesa jartzea asko eskertzen dela esan digu.

Plaieroa hasiak dira

Senior mailan Oriotik bost talde apuntatu dira plaieroeitan: Gabon taberna, Oliden jatetxea, Kepa Loidi harategia, Orzaika jatetxea eta Pukas Surf-Aia-Orio.



Orio futbito taldea sortu da

Lagunen arteko erabaki bat izan zen Areto Futboleko talde bat sortzea, eta gero preferentetik kanpo geratu zen jendeari komentatu zitzaien. Denera hamabi jokalari bildu dira; Fernando Gama, Encko Manterola, Imanol Atorrasagasti, Jose Bizente Miera, Mario Padrones, Hakin El Ghailani, Joan Mari Lertxundi, Jose Manuel Agirresarobe, Patxi Manzisidor, Jesus M. Bravo, Fernando Ortiz de Guinea eta Asier Altuna. Julio Alvarez da entrenatzailea eta Karmele Garmendia, berri, taldearen delegatua.

Martxitik aurrera frontoiarekin arazoak izango dituztela adierazi digute, pelotariek frontoia behar izango baitute. Ondorioz, ez dakite non jokatuko dituztien partiduak. Hau ez da areto futbol taldearen arazoa bakarrik, saskibaloiokoak ere egoera berdinean daude. Horrelako arazoek Orion polikiroldegi baten beharra dagoela adierazten dutela adierazi digute.

PATXI

Telfnoa: 83 18 37

M

ORRAZKERAK
Telfnoa: 83 12 61

18-25 urte
bitarte-
koentzat
prezio
bereziak

URAITZ LURRINDEGIA

KIROMASAIA

ESTHETICIEN

ENDAIA 3 Telfnoa: 83 18 97

Eugenio Garmendia

KONTSEILARITZA

Telfnoa: 83 44 66

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Telfnoa: 83 00 05
13 25 32

Iñaki Oliden Gipuzkoako Txapeldun kintopeko txapelketan

Urriaren lehen Aizamazabalen jokatu zen Gipuzkoako harrijasotzaile kintopeko (sub 21) en txapelketan Iñaki Oliden izan genuen txapeldun.

Lau harrijasotzaile ziren izena emandakoak, baina azkenean hiru agertu ziren: Jon Beristain "Aitzeta", Eñaut Larrañaga eta Iñaki Oliden. Bete beharreko lana hiruentzako berdina zen; hiru minutuko saio bat, 100 kiloko harri zilindriko zaharrarekin eta hiru minutuko beste saio bat, 100 kiloko kubikoarekin.

Iñaki Oliden izan zen lehenengoa parte hartzen, eta zilindroa 33 aldiz bizkarreztu zuen, gero Eñaut Larrañak 24 aldiz eta azkenik, Aitzetak 28 aldiz. Kubikoa, berriz, Olidenek 22 aldiz jaso zuen, Larrañagak 15 aldiz eta 19 aldiz Aitzetak. Saillkapenean ikusten den bezala Iñaki Olidenek aise irabazi zuen Gipuzkoako kintopeko txapelketa, 55 jasoaldirekin bukatu baitzuen txapelketa, Jon Beristainek 47 eta Eñaut Larrañagak 39 jasoaldirekin amaitu zuten.



Arrakasta handiz ospatu zen Eskolarteko I. Olinpiada

Urriaren 29ko Gazte Festaren programaren baruan antolatu zen aurten lehenbiziko aldiz Eskolarteko Olinpiada. Antolatzaile-lanetan Juan Angel Alguacil ibili zen. Arraun Klubeko Atletismo Saileko hainbat lagunekin. Antolaketa ona izan zen nahiz eta, *"nahastu yumarra izan zen zenbait momentutu"* Juan Angel Alguacilen esanetan.

Nahasketa zerbait egon bazen, partchartzaile kopuru handiaren ondorioz izan zen, guztira 165 haurrek hartu baitzuten parte hiru kategoriatan banatuta (benjamín, alebin eta infantilak). Gazte Festaren programaren barruko aktibitateetako bat izan zenez, dortsalarekin batera guztiak jaso zuten Euskaraz Gazteko kamiseta bat opari. Goizeko hamaiketan hasita, lau probatan aritu ziren haurrek: 60 metroko lasterketa, krossa, luzera jauzia eta pisu jaurtiketa.

Lau probatako batuketa eginez, honako hauek izan ziren irabazleak: **Benjamínak**. Nesak: Maialen Murgiondo. Mutilak: Josu Esnaola. **Alebinak**. Nesak: Ninoshtka Gozategi. Mutilak: Jon Lizaso. **Infantilak**. Nesak: Yoana Solaberrieta. Mutilak: Josu Blanco.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak...

Telefona: 83 06 09

Genoki
Gozotegi-Kafetegia
AZKUE

Eusko Gudari, 33. Tfnoa: 83 39 20

ANARR

Quik Silver kolekzio berria, galtza
bakeroak, kamisetak, txamarruk...
Tfnoa: 83 21 60

MAPFRE, S.A. ASEGURUA

Eusko Gudari 50 B-1.E
Telefona: 13 37 20

Rafa G. de Txabarri

“Horrelako aukera bati ezin nion uko egin”

Nahiz eta aita estropalaria izan, futbolean eman zituen bere lehen urratsak eta Orioko futbol taldean aritu zen gaztetan, aitak estropadetako saltsetan ez sartzeko, inoiz ez dela gauza onik izaten-eta esaten baitzion. Hogeita bederatzi urte bete ditu eta, saltsan ez ezik, bere bizitzako pasagune zailenean sartzen doa... arrauna dela medio.

Nola izan da zu Zierbenan joateko erabakia?

Rafa G. de Txabarri: 1995. urteko denboraldiaren azkenengo estropada bukatu eta ondorengo egunetan, Zierbenako klubeko lehen-dakariak deitu zidan hurrengo delboraldirako zuzendari-teknikoaren postua eskeiniz. Berarekin elkarritzeta pertsonala izan nuenean, postuaren baldintzak jakinarrazi zizkidan, eta nik pentsatzeko epe bat uzteko eskatu nion. Nire inguruko lagunei abolkua eskatu, iritziak jaso eta ondo pentsatu ondoren, kargua hartzea crabaki nuen, eta horrela esan nien aurretik zenbait baldintza jarri eta gero. Nere baldintzak onartu egin zituen klubak.

Zein iritzi jaso zenituen?

R. G. de Tx.: Aurrenenagoa Jose Luis Kortarena izan zen eta, inongo dudarik gabe, hartzeko esan zidan. Lagunek ere animatu naute, etxearen ondo pentsatzeko esan zidaten. Gehienengandik animoak eta laguntza hitzak jaso ditut.

Eta zure planteamendu pertsonala?

R. G. de Tx.: Erronka profesionala da niretzat. Kontruan hartu behar duzu egin ditudan ikasketak (Heziketa Fisikorako Euskal-Erakundean lizenziatu nintzen) arlo fisioa ezezik teknikoa eta prestakuntza osora bideratuta daudela, eta nire jardueran nuen hutsune bat betetzea espero dut lan honekin. Bestalde, joan den urtean, Orioko Klubean prestatzaile fisikoa izateaz gain, lau hilabetetan besterik ez naiz lanean jardun ordezkapena egiten institutu batean, esan nahi dut soldatua kobraztuz, eta nire egoera nahiko larria izan da. Hau izan da Zierbenako kargua hartzeko beste arrazoi bat.

Beraz, ogibidea zihurtatu nahi duzu?

R. G. de Tx.: Bai, noski. Egia esan, orain egoera zeharo aldatu da niretzat. Datoren hilean Zierbenan hasiko naiz lanean, baina Orioko arraunlarien prestatzailea izaten ere jarraituko dut, hau izan zen Zierbenari nik jarritako baldintza. Zarauzko Institutuan bi hilabeteko ordezkapena egiteko deitu didate eta, gainera, Guillermo



Cuesta eta Sabino Padillak (Indurain eta Martin Fizien medikua) Gasteizen ireki berria duten Kirol Medikuntza Zentruan entrenamendu ahokularitzan aritzeko eskatu didate... Dena batera etorri da, ikusten duzunetan lan asko, gehiegi agian.

Zein differentzia ikusten dituzu Orion egiten duzun lana eta Zierbenan egin beharko duzunaren artean?

R. G. de Tx.: Zierbenan lan baldintza zeharo ezberdinak izango ditut: arraunariak, materialak (enbarkazio eta gimnasioa), dena nire gain egongo da eta horregatik buru-belarri jardun beharko dut. Han aurkituko dudan arazorik handiena arraunari saltarena izango

da. Aurten bertan, tripulazio bat osatzeko lan handiak izango ditugu. Horregatik, nire ahalegin guztiak gerorako egitura sendoagoak finkatzean jarriko ditut, gazteen kategorietan arituz jende arazo hori konpontzeko.

Zierbenan, arraunari eta klubarekin batera, hazia jartzear da helburu egun batean uzta jasotzea, Orion, ordea, aurten ere koadrilla ezin hobea izango dugu, beraz, punta-puntan ibili eta irabaztea izango da helbura. Pena emango dit hainbeste denbora eta harreman hain eskuak ezin izango ditudalako Korta eta mutilekin izan baina... ezin nion uko egin profesionalki horrelako aukera bati. Hori bai, oriotarrak horria, beste kolorerik ez du.

Zine-Kritika

Los puentes de Madison

Jatorrizko titulua: The Bridges of Madison County

Zuzendaria: Clint Eastwood

Aktoreak: Clint Eastwood, Meryl Streep

Iraupena: 135'

Aretoa: Astoria 3

Hemen datorrigu berriz ere Clint Eastwood beste maisulanbatekin. Baino oringo honetan ez dago ez tirorik eta ezta hildakorik ere, erromantikotasuna eta sensibilitatea baizik.

Robert James Waller-en nobela batean oinarrituta zuzendu du klasiko bihurtuko den maitasun istorio hau. Filmearen protagonistikak basetxe batean bizi den Francesca Johnson eta National Geographic-eko argazkilari den Robert Kincaid dira.

Francescaren gizona eta seme-alabak feria batean dauden bitartean, Robert azaltzen da Madison-eko zuziak non dauden galdezka



eta Francescak lagundu egiten dio. Horrela ezagutzen dute biek elkar eta hasiera batean laguntasun kume bat izaten hasten dena, maitasun eisitua bihurtzen da.

Ez batak eta ez besteak sekula ahaztuko ez dituzten lau egun igaroko dituzte elkarrekin. Baino historia ez da horixe gelditzten, Clint Eastwood, zuzendari lanetan, oraindik urrutirago doa, Francescaren seme-alaben (jada ezkonduak) erreakzioak tartekatzen ditu, beren amak hain isilpean gorderik edukitako maitasun-istorioa

irakurzen duten bitartean. Horrela, pelikula oraindik utseginago egiten duen umorea sartzeko aprobatxatzen du Eastwoodak.

Antzezleei dagokienez, Meryl Streep-ek erakutsia digu ondo antzezten badu kiela eta pelikula honetan berriro gogorazten digu hori. Clint Eastwoodi buruz, zer esan? Antzemanda geruden aspalditik aktore bikaina dela eta pelikula hau ikusi besterik ez dago, berak aurrez zuzenduriko lanak ez zirela kasualitate hutsa izan konturatzeko. Detaile guz-

tiak ondo zainduta daude: eskuak mugitzeko era, gorputzen jarrerak, mugimenduak... Txorakeria diruditen gauza txikienak ere istoriarri indarra eta dramatikotasuna emateko erabiltzen ditu.

Benetan merezi du pelikula hau ikustera joatea eta drama gustoko generoa ez baduzu ere (nire kasuan bezala) ez du garrantzirik, zeren berdin-berdin gozatuko baituzu.

● ITZIAR URRETABIZKIA ●

ZASS
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA
SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Carmen
ARRAINDEGIA

Telefona: 83 05 37

bai-ondo
Supermerkatua
Telefona: 83 47 50

Intsumisioa aztergai

Ejemmm, Orion intsumiso talde bat martxan dela jakinarazi nahi genuke aurrenik, orain bi urte inguru sortu zen eta badoa pixkanaka pixkanaka bere helburuak finkatuz. Euskal Herrian mugimendu antimilitaristak dinamika berri bat sortu du herri borroka/mugimendu bat bilakatuz, balore militaristei kontzientzia eta altenatibak sortuz. Jakinik mugimenduak herriaren begikotasuna zuela talde baten beharra ikusi zen modu honetan indarrak batu eta errekonozimendua implikazio biburtu zedin. Ikusrik ejerzitoek ondorio negatiboak besterik ez dituztela, nolabait esateko herrien suntsipena, diskriminazia, gastu militarrak, gizartearen eskubideen zapalketa eta abar, hasierako helburua herria ejerzitoen aurka kontzientziatzea izan zen/da, bide batzera intsumiso presoen egoera, dispersioa, errepresioa eta abar salatuz. Beraz, ez al da posible giza harremanak gizartearen ibilmoldea beste modu batzera planteatzea, militarren logikan behin eta berriro erori gabe?

Gure herriko egoeran zentratuz ez zenez nahikoa zenbait gazteren implikazioa, udaletxera jo genuen mozio bat surkeztuz. Moziak Orioko intsumiso eta halaber intsumiso guztien epaieten aurkako jarrera azaltzea eta Udalak herriko intsumiso guztiak ordezkarri bat izendatzeaz gain, epaietako gastuak



IÑAKI ANDRES
ORIOKO INTSUMISO TALDEA

eta ondoren gerta dakiekeenaren jarraipen bat egitea besterik ez zuten onartu, garbi adieraziz Udaletxeen ejerzitoaren dinamikan parte hartzen jarraituko zela.

Beste zehait punturen artean, informazio bulego bat ireki edo irekitzen laguntzeko eskatu genuen mugimenduaren berri galdetuz zetorren edozeini argibideak emateko, baina Udaletxeen dagoen informazio bulegoak lan hori betetzen duela adieraziz ukatu ziguten eskaria. Plenoan gertatu zena ikusirik, gure ezadostasuna adicrazi nahian eta genituen ideiak mahai gainean jarri nahian, alkateari bilera bat egitea eskatu genion eta hainbeste kosta zen bilera hori pake-pakean joan ginendak, lotsaga-

be hutsak ginela esan eta bere bulegotik bidali gintuen. Horretaz gain, Udalak mozioan puntu hori onartu zuenez, Asier Gozategiren epaietako gastuak ere bidali genituen Udaletxera eta pare bat hilabeteren buruan noizko ingresatuko zuten galdeztura joan ginenean Ongizate zerbitzuan aztertzen ari zirela esan zigun alkateak, eta beste batan joateko. Joan joan ginenean, baina lanpeturik zebilela esanez egin zigun eskapo berriz ere.

Beste kasu bat aipatzekotan, aurten zozketatzen ziren zerrrenda eske joan ginenean Udaletxera eta hori ere ukatu egin ziguten, gero beraiek kalentzen dituzten arren. Bide batez, Udal nahiz alkatea, erakunde politikoak, Gasteizko Parlamentua eta abarren joera pasiboa salatu nahi genuke.

Azkenik eta bukatzeo badakigu intsumiso izatea, ejerzitoekiko desobedientziarekin lotu izan dela beti baina esparru zabalagoak ditu. Hau esanik frogatzen dute militarrek hainbeste behar duten bonba atomikoaren kontrako jarrera azalduz eta armadaren papera kuestionatzu.

Besterik gabe inork ezer jakin edo ezertan parte hartu nahi badu, eskuak zabalik ditugu.

Gora Euskal Herri intsumitua!!!

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Aita Lertxundi 15, 2. ekz. Orio Telefonoa: 83 11 49

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA. S.A.

Aseguruak

AURRERA

disko-taberna

ORIO

OPITZ
Oinetakoak ☎ 830089

Autoak aukera
onean

AIA ORIO

Telfono: 13 04 38



Zabor bilketa zerbitzu berria

Zabor bilketa astean hiru aldi egiten da, eta papera eta bidrioa aparte jasotzen da. Orain zerbitzu berri bat jarriko da martxan, altzariak, elektrogailuak, oheak, armazoiak eta antzekoak bilduko dituena. Asteazkenetan izango da ordubi ferdietatik aurrera, baina aldez aurretik udaletxean hondakin hauen berrieman behar da jaso ahal izateko.

Lerro hauek aprobetxatuz zakar poltsak ondo itxita botatzeko eskatuko dizuegu, dena ahal den txukunena mantentzea denon omerako baita.

Musika kontzertua

Orain dela gutxi berritutako dema plazan hiru idi proba izango dira azaroan Udalak antolatuta. Azaroaren 10ean Belarreta, Zurdo eta Telleriaren idiak izango dira lehian. Hurrengo gauean Erreista, Artadialde eta Urkiri. Bi saio hauek gaueko hamarretan hasiko dira. Azaroaren 13an, berriz, gaueko bederatziatik aurrera Simon, Izeta, Etxeberri eta Frantzillia Berriren idien txanda izango da.

Lehenengo saria 250.000 pezeta, udalaren kopa eta mantak izango dira.

Azaroaren 4an Su ta Gar, Lin Ton Taun eta Etzakit musika taldeak Aian izango dira. Sarrerak 1000 pta. baliu du, eta aldez aurretik Aiako Kanua edo Orioko Arkaitz tabernetan erosiz gero 800 pta.

KANUA JATETXEA

Hamaiketakoak,
bazkariak eta
afariak egiteko
kategoriko lekua

☎ 83 43 22



ITURRIOZENA Gure herriko jaki tipikoenak

Tfnoa: 83 42 72

ALUSTIZA AUTOBUSAK

16, 36 eta 56 plazakoak
Bidaiatu eta ezkontzetzara edo sagardotegira joateko

☎ 13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 19 27

Jose Antonio Iruretagoiena eta Idoia Aldai

Bi aiar Ertamerikan hango behartsuekin

Jose Antonio Iruretagoiena eta Idoia Aldaiak aspalditik zebilkiten buruan Ertamerikara joateko ideia. Euren helburuetako bat, beste herrialde, kultura eta biztanleak ezagutzea izan da, aldi berean beren barruan zituzten kezkei erantzuna ematea.

Asmo horiek lortu ahal izateko, Jose Antoniok Ecuador-eko bidea hartu zuen, eta Idoiak, berriz, El Salvadorrekou. Lehena duela hilabete bat itzuli zen gure herrira, eta Idoia, berriz, duela aste bete eskas.

IDOIA ZARAUTZ

Bazekiten haruntza joatea gogorra izango zela hemen daukagun bizimodu eta hangoa zeharo desberdinak

direlako. "Nik hemen, koxea, etxea, lana, lagunak eta gaur gazte batek amesten dituen gauza guztia nintuen. Dena den, zerbaite falta zitzaidan, harruan kezka sortzen zidan zerbaite nebilkienean, eta horregatik haruntza joa-

tea erabaki nuen dena utzi-ta" dio Jose Antoniok. Idoiak, berriz, bazekien haruntza joanda ez zela aberastuko. "Haruntza joan eta bizi ahal izateko hemen irabazi-tako diruarekin joan behar ko nuela banekien. Argi neu-kan dirua ez zela helburua, beste herrialde baten muina ezagutzea baizik. Dena den, nire barruak lehen baino aberastasun handiagoa duela esan dezaket errepavorik gabe".

Nahiz eta beren helburuak berdintsuak izan, bizi izan diren inguruneak desberdinak izan dira. Idoia San Salvador hiriburuan eta inguruoko herriska pobreetan ibili

den bitartean, Jose Antonio gehienbat herriska pobre eta oihan barruan ibili da. Hala eta guztiz ere, biek ederki ezagutu dute hirugarren mundua nolakoa den eta bertako biztanleen 'pobrezia'. "Gure ikuspuntutik pobreak direla esan dezake batek baino gehiagok. Guk, halere, gu baino aberatsagoak direla esan dezakegu. Beti elkarri laguntzeko prest azaltzen dira eta dutena besteei emateko ez dute inolako eragozpenik jartzen. Bizi ahera ere, emango lukete beharrezkoa izanez gero, lagun batzuk laguntzeagatik. Eta hori hemen ez da ikusten" diote biek.



Idoia El Salvadorren egon da, eta duela aste bete eskas etorri da, baina bueltatzeko idea dabilki buruan, bisitari besterik ez badu

Haurtzaindegia

Haruntza joandakoan noraezean ibili ziren au-reneko egunetan, hemen-goarekin alderatuz dena desberdina baitzen. Jose Antoniok lan askotan jardun du, eta beti bertako lagunei lagunduz. "Eraikuntzan jardun nuen, pintaketan, nekazaritzan batez ere oihan barruan bertako tribuekin bizi izan nintzen bitartean, baina gehien gustatu zai-dan lana haurtzainde-gikoa izan da. Haurrak oso behartsuak dira eta biziak salbatu dituzula ja-kitean errealizatuta ikus-te duzu zure burua. Hau-rek arazo dexente dituz-te, batetik gaisotasunak, batez ere azalekoak, eta desnutrizioa bestetik. Hori dela eta, zenbait sendagi-teren lagunraz, haur huaeit laguntzen saiatu gara eta aldi berean gura-soen jokabidea aldatzen". dio Jose Antoniok. Idoiak ere haurrekin egin du lan gehien bat. "Niri ere hau-ren eta emakumeen egoerak eman zidan zer pentsatua. Hori dela eta, hasiera batean beste era bateko lanean jardutea pentsatzen banuen ere, haurtzaindegí batean lan egin dut. Hango egoera-ren biktima zuzenak umeak dira, eta haietkin egon nahin nuen".

Nahiz eta diru askorik ez izan, jateko ez zaie ezer falta. Inguruak ematen dienarekin bizi dira. Dena den gizon eta emakumeek gogor lan egin behar izaten dute, batez ere emakumeek. Emakumearen egoera, hau-trena bezala, ez da batere



"Gu baino aberatsagoak direla esan dezakegu"

ona, matxismoa puri-purian dagoen errealitatea baita.

Badakite biek ere, harun-tza bueltatzea zaila dela, baina beren buruan, bisitan bada ere, ideia hori dabilikite. "Gustatuko litzaidake harun-tza joatea, baina oihanean bizi direnen etorkizuna nahiko beltza ikusten dut. Petroleroak pixkanaka pixka-naka oihana suntsitzen ari dira, horrekin batera bertako tribuak desagertzen ari dira, eta urte gutxi barru oihana galdu egingo da" dio Jose Antoniok.

Misiolariak

Euskal Herritik joandako misiolari asko dago Ertame-rikan, eta Jose Antoniok hauen lana azpimarratu nahi du.

"Beti pentsatu izan dugu, misiolariak, erlijioa inposatu nahian joan direla. Baina beti ez da halazten. Nik ziuria dezaket, misiolarietan asko eta asko egin dutela Ertamerikan, eta momentu honetan ere ari direla, trukean haien esker ona eta

maitasuna jasoz. Ni egen naizen herriskan, eskola, haurtzaindegia, unibertsitatea eta abar misiolarien lana izan da. Ni, eta ni bezala pertsona asko, ez gara misiolari joan, baina orain egin dugun lana ikusita, batzuen begietan ni misiolaria izango naiz" dio Jose Antoniok.

Misiolarietan izugarria egin dute herrialde hauetan. Espainiar bikote asko dago, hemendik hara joan, eta han beren bizitza osoa bertakoei laguntzen igaro duena. "Lan izugarria egin du jende honek, misio bat burutu dute, eta nahiz eta apaizak ez izan, pertsona hauetek misiolariak dira, ezeren truke, beren bizitza osoa besteei eskaintzenari direlalo, eta hori benetan ikaragarria da. Gauza hauetek ikusita, indarra berak ematen du aurrera begira jende honenkin lanean jarraitzeko" dio Jose Antoniok.

Askotan diruak ez gaitu guztiz zoriontsu egiten, dirua ez da dena. "Herrialde hauetan nahiz eta diru aldetik, gu baino askoz ere pobreagoak izan, espirituz gu baino askoz ere aberatsagoak dira. Nik jendea animatuko nuke diruarekiko beste pentsakera bat hartzea. Badakigu bizitzeko, hemen behintzat, dirua behar dugula, baina ez dugu behar inori kalte egiteko, eta are gutxiago geure buruari. Zoriontasuna aurkitu behar dugu, eta horretarako norberak bere barrura begiratzea eta zoriontsu izateko ze falta duen aztertzea besterik ez dauka" dio Jose Antoniok.



Noruegako baserritar talde bat Aian

Pilarikako zubian Noruegako baserritar talde batek Euskal Herria bisitatu zuen eta egun bat Aian pasa zuten. Egun horretan baserriko emakume elkartarekin (EBEL) topaketa bat izateko aukera izan zuten, eta bertan emakumeen arazoak eta zaitasunak azaldu zizkieten. Hemengo iniziatiabak hobeto ezagutzeko eta harremanak lantzeko gogoa erakutsi zuten, beraz hurrengo batean emakumeak bakarrik etortzeko prest azaldu ziren.

Prezio bereziak aiarrentzat Usurbilgo kirldegian

Usurbil eta Aiaren arteko senidetze hitzarmenaz geroztik zenbait ekintza antolatu dira elkarrekin, eta oraingo honetan usurbildarrek proposamen berezi bat egindute. Usurbilgo Kirol Patronatuak bertako erroldan dauden guztiei eskaintzen dizkien kirol zerbitzu guztiak, baldintza eta eskubide berdinak eskeini dizkigu aiarro. Informazio zehatzagoa nahi ducena Usurbilgo Oiardo kiroldegira edo Aiako Kultur- etxera hurbil daiteke.

Ibilaldia Pagoeta parkean

Arreta taldeko kideen es-
kutik ibilaldi bat izango da
Arreta, Olarteta, Ernio-txiki
eta Murugiletik azaroaren
18an. Irteera goizeko
9:30etan izango da plazatik.

TXUKUN
Lorazantza
.....
'Basoetako esplotazioa eta lorralana
Tfnoak: 13 07 69/908-17 93 16

**POR TU
ERRETEGIÀ**

ALTXERRI
Jatetxea
Telefona: 83 07 62

A ABERENA PENTSUKONPOSATUEN BANATZAILEA

Antton Sarobe



Joan direnentzat irriparra

Egun hauetan modu bereziz apainduta azaltzen dira kanposantu guztiak. Normalean bakarti agertzen diren hilobien arteko bideskak, azaroaren lehen egunean jendez gainezka aurkitzen ditugu, aspaldian ikusi ez dugun jendearekin topo eginez, urteroko bisita eskeintzen diegu gure ondotik joan direnei.

● ANA G. DE TXABARRI ●

Berreun bat mila urte ditu hildakoak lurperatze-ko ohitura honek eta gizakiok, beste gauzatan hain fidelak ez bagara ere, tingo eusten diogu usadioari. Gizakiak goiz ikasi zuen begirune berezia izan behar zuela hildakoekin. Leku batetik bestera, kul-

tura ezberdinak modu pro- pioan antolatu dute kulto hau, baina inork ez du ahaztu egin behar dela,

Euskal Herrian, etxearen jarraipena izan ohi da hildakoak jartzeko lekua, etxe alboan, etxetik gertu. Etxeak bizirik gaudenean babesia ematen digu, ater-

pea da guretzat eta hori bera da luzatu nahi dena. Ume txikiak hildakoan, etxe ondoan eta teila batzen babespean sartzen zi- ren duela ez hainbeste.

Orioko elizak berak ere oriotar asko jaso ditu bere hormen artean eta oraindik ere ikus daiteke hau

koru azpiko eserlekuen itzalean, han gordetzen diren hilobiak izen eta guzti daude-eta. Etxearena egiten zuen elizak.

Zuetako askok gogoan izango duzue, orain Itur- bide kaleko eskola txikiak dauden lekuau, «kanpo- santu zaharreko baratza»

deitzen zen tokia, Goiko Kalen, kale Nagusiaren ondoan, elizatik oso ger- tu.

Gure kanposantua

Baina XIX. mendean eta higiene eta osasun arazoak zirela medio, politiki-poliki etxe tartetik kanpo-raeramaten hasi ziren kanposantuak, eta oriotarrok ere horrela erabaki genuen orain dela ehun urte hain zuen.

Ez pentsa, ez zen hain erraza izan-eta. Kanposantu zaharra oso txikia zen, eta, garai hartako legeak, gorpu bat kendu baino lehen, hogeitze pasatzen behar zirela esan arren, bost, eta gutxiago ere, besterik ez zuten egiten bertan beste bati tokia uzteko. Gainera, behin eta berriro aipatzen zuen Juan Antonio Makazaga apaizak, lotsa ere ematen zuela zein gaizki zegoen, zikin eta zakar, inongo ordenarik gabe, etxe askoren ondo-ondoan, duintasun minimoa ez zitzaiela eskeintzen hildakoei. Gauzak horrela, udalak txostenetan eskuatu zuen kanposantu berri batzen beharra azaltzeko Diputazioari. Azken hamar urteetan (1884-1894) berrehun bat hildako izan ziren, beharra baino gehiago premia zirudien.

1895eko ekainean erabakia hartu zen eta, elizak dirurik ez zuela esaten zueñez (Gotzaiaik ez zion ezta erantzunik eman Orioko apaizari honek eskaera egin zionean) Udalak bere

gai hartu zuen obra guztia: 10.835,65 pta. izan zen aurrekontua. Orioko herriak ordaindua da, erabat, gure kanposantua.

Toki bila

Non egin erabakitzeari ere buruko min batzuk

aurretik eramango ez zuen toki batean eraiki behar zen. Legearen arabera ezin zen ibaia edo ura zegoen lekuaren egin, bestela izurrite arriskua baitzegoen... Azkenean Etxeberri-azpi izenarekin ezagutzen den horretan egitea erabaki zen. Herriko azken etxean 240 metrora zegoen, bai-

eskuratu zuen Udalaren eskerrenarekin. Hurragoak, erostera joan zenean, 200 pta. ordaindu zituen.

Urtebeteko lana

Lanak hasi eta urtebetean bukatu ziren. Elizatxoak ere bazuen, San Jose izena zeramana, hau baita heriotza leunago izateko errezuak egin behar zaizkion santua. Ume txikientzat mendebaldeko zona utzi zen (lehen aipatutako urte horietan hildako berrehun eta hogei artean, larogeita hamasei zazpi urte bete baino lehen hildakoak ziren), hezurrak gordetzeko depositoa, eta, berezia iruditu zaigu aipamena, katolikoak ez direnentzat beste unetxo bat jartzen zen. Erdi-erdian harrizko gurutze handi bat

Berreahun bat mila urte ditu hildakoak lurperatzeko ohitura honek

soratu zituen. Oriok ez du lurrik soberan, ondo baino hobeto dakigu hau gukere. Legeak, kanposantua herriko azken etxetik 500 metrora egin behar zirela zioen. Urak edo euriak

na eliza 500 metrora eta baimena lortu zen.

Lurra donostiar bati erosia zitzaison, Jose Frantzisko Orendaini, eta honek lehen hilobidea, elizatxoaren ondoan dagoena, betiko

Urtero jende mordoxa bilten da kanposantuan fetxa hauetan. Guretzar hain maiteak izan direnen hilobiak ederta eta bisita egin, gogoan ditugula azaltzeko



kokatu zen. Hemendik errez iger daiteke, orain joan eta gurutzearen ondoan jartzen bagara, zein tamaina eta itxura zuen eta zein izan diren zabaltzelanak orduz geroztik.

1896ko uztailaren bederatzian bedeinkatu zen kanposantua, goizeko zazpietan! Juan Antonio Makazaga zen apaiza, Antonio Iturain alkate,

Requiem æternam

Egia esan, eskerrak ematea orduko oriotarrei gutxiengo lana iruditzen zait. Ez bakarrik buruhauste bat kendu zigutelako, ez, baizik eta betiko atsedena hartzeko guretzat



Orioko lekurik ederrena aukeratu zutelako. Zuek esan bestela: erribera osoa ikusgai, itsasoa lagun eta

mendiak seaska.

Gaur egun, ez zaio gara hartako antolaketari eusten. Katolikoaren artean beste erlijioko hilobiak ere agertzen dira, batzuk beste alde batera begira daudenez oso ondo nabarmenzen dira. Ez da hainbeste haur hiltzen eta ez dira besteengandik bereizten,

teko arrazoi izkutua. Errantomikoek hain gustokoa zuten izua eta beldurra soberan daude, morboa ez da moda iadanik, ez, bai ordea, maitasuna.

Marguerite Duras idazle frantsesak *Hau da dena* bere azken liburuan horrela erantzuten du heriotzaren ostean zer dagoen

Herriak ordaindu zuen kanposantu berria



1896ko uztailaren bederatzian bedeinkatu zen kanposantu

Hori bai, izen-abizenak errepikatzen dira eta norberak bere etxeak biltu eta aurkitzen ditu, jakin badakigulako jaio eta bizirik gaudenok hantxe elkartuko garela egunen batean. Hau da ziur dakin gauza bakarra eta, agian, hildakoei bisita egi-

galdezen zaionean:

«Ezer ez. Bizirik daudenak irripar egitea gutaz gogoratzen direnean»

Hau zor diegu gurekin egon diren bitartean maite izan ditugunei, hau espero dugu beste batzuek gurekin egitea egunen batean.

Jose Mari Ostolaza Lertxundi "Xalbardin"

Oroz gainetik euskal militantea

Donostian jaio eta bizi izandako oriotar hau, orain Urruñan bizi da, Euskal Herriaren Iparraldea eta Hegoaldea batzen dituen Larrun mendi ederraren magalean, 'Xalbardin Baita' baserrian, Usurbilgoa duen andrea eta seme batekin.

INAKI ITURAIN

KARKARA: Donostia-rra edo oriotarra?

Xalbardin: Anai zaharra Orion jaio zen, arreba eta biok, berriz, Donostian, baina akzidenteaz. Gure etxea Orioko sukursal bat izan da beti. Hitz egiteko gaia ere beti Orioko genuen, arrantzaleen kostera, zenbateko partilla egin zuten, osaba Txokolate,... Eta estropada garaian, zer esanik ez, Txokolateren semea, Paxti, arraunaria izan zen eta urtero joaten ginen estropada ikustera.

K.: Gurasoak nongoak dituzu?

X.: Aita Xalbardin, aitona Muniyotakoa, amona Katxiñakoa, gero Itxaspera joan zirenak, Irastorza. Aitonaren arreba bat Andura joan zen. Pentsa nongoa nai-zin.

K.: Zuk txikitán euskera galdu zenuen ezta?

X.: Bai, Donostiako Egian inork ez zuen euskeraz egiten eta etxearen gurasoek euskeraz egiten zidaten eta nik erderaz; eta Oriora joaten nintzenean lehengusuengana sekulako lotsa pasatzen nuen, ez nintzelako gauza euskeraz egiteko. Donostiarra etorrira, berriz, lotsa aitaganik pasatzen nuen, erderaz gaijki egiten zuelako eta barre egiten ziotelako. Bi hizkuntzen borroka, oso gogor, bizi izan nuen nire baitan.

K.: Nondik nora ibili zara

zure denboran?

X.: Eskola 14 urterekin utzi nuen. Ez nembilen gus-tora. Ni agintariekin ez naiz sekula ondo moldatu. Eta taldearen hasi nintzen. Geroztik ikasi ditut maestria eta peritajea, gauez. Zaletasunik haundienetako bat kantatzea izan dut, beti, Coro Easo-n kantutzen nuen eta Pasai San Juanen musika talde batean hasi nintzen, 'grupo musical vasco' zuen izena, eta txotisak eta holakoak kantatzen genituen. Garai hartan sortu zen Ez Dok Hamairu eta nik oso gertutik jarraitu

nuen hasiera hartako giroa, eta mundu berri bat desku-britu nuen. Orduan erabaki nuen taldea uztea eta euske-la lantzen hastea. Nire burua ri agindu nion ez nuela ge-hiago erderaz kantatuko.

K.: Orain idazle ere baza-ra, ondo ikasi zenuen eus-keria ezta?

X.: Asko idazten dut, asko, baina nire burua ez daukat idazletzat. Ikasi, errez ikasi nuen, bai, zaletasuna hartu niolako hizkuntzari. Nik euskerari zer diot kantu, idaztea, bizimoduaren kalitate bat, eta batez ere oso giza inguru aberatsa iza-tea, ez dirutan, bestela. Euskerari eta hemengo borrokari.

K.: Bertsozalea ere ba omen zara.

X.: Bai, eta ba al daki-zu non zaletu nintzen? soldaduzkan eta gero kartze-lan, askotatik pasa naiz, Martutene, Carabanchel, Ocaña, Burgos, eta den-bora izan nuen irakurteko. Aita Zabalaren liburuetan deskubritu nuen nik bertsoa, eta asko zaletu nintzen. Gure aitona zena Errikotxia bertso-riaren semea zen eta asko ibili nintzen berarekin bertso saioetan. Bapatean askorik ez, baina, idatzi, bertso asko idatzi dut.

K.: Orain Urruñan bizi zara. Badirudi hau oriotar askorentzat oso urrutia da goela, hona etortzen dire-nean Frantzira etortzen baitira?



"Frantserek eta españolek ezingo gaituzte desagertarazi"

X.: Hori kultura falta da, nork bere etxea ez ezagutzea. Espuñarekin lotura siko- logiko haundia daukagu, mendetako. Hemen berdin gertatzen da, lehen tabernan zurekin hizketan egon den baserritar horrek ere hala esango du: 'español batekin mintzatu naiz'. Bainaz gau- de horren urrutti, udan Donostia suak ikusten ditugu balkoik behintzat eta.

K.: Muga komertziala des- agertu da, baina sikolo- gikoa ez. Nola bota daite- ke?

X.: Hemengo lagunak egin behar dira eta ikusi euskaldunak direla, gu bezela. Kultur talde mistoak sortu behar dira, bi aldeetako jendearekin. Abertzale mugimenduak ere ez du asmatu horretan. Eta, bestetik, frantsesa ikasi behar dugu, gazte guztiak ikasi behar dute eus- kera, gaztelera eta frantsesa, eta, abal bida, besteren bat. Ikastolek ere huts hori egiten dute, inglesa beti. Bainu ni baikorra naiz, gazteen artean aldatzen ari da, harren normalagoak dituzte.

K.: Arrantzaleen arteko is- tiluek ez dute laguntzen bide horretan, ezta?

X.: Eta kontua da hemengo arrantzale gehienak ere sare pelajikoen kontra dau- dela. Horretan ere bata- sunezko egiturak sortu behar dira. Askotan esaten diot hori Esteban Olaizolari, horretan ahalegintzeko.

K.: Oso kirolzalea zara. Ez al dira oso giro kontrajari- riak hizkuntzarena eta ki- rolaren mundua?

X.: Nik ez ditut horrela bizi, bietan oso modu natu- ralean jardun naiz. Egia da oso gutxi direla bi mundu horietan bietan dabilzanak. Begira Hernaniko futbol taldearen entrenatziale nintzen,



Bere kastakoa den Patxerrikondo eta honen semearekin
Urruñako 'Xalbardin Baita' baserrian

han Ostolaza nintzen eta inork ez zekien Xalbardin kultur gizonaren berri, nire beste giroan ez zekiten fute- bolean nembilela. Bainu beti izan naiz kirolzalea, futbolean, eskubaloian, arraunean ere ibili nintzen San Juanen, urte hartan estropada guztiak irabazi genituen traine- rilletan.

K.: Nola ikusi duzu oriota- ren aurtengo denboral- dia?

X.: Begira, gure aitak es- atan zuen trampa egiteko ere kapaz izan behar dela ira-

bazteko. Irabazleari gauza gutxi barkatzen zaio galtzen duenean, eta irabazi denak irabazi behar ditu. Oriok bade- uka gauza bat besteek ez dutena, tradizioa, Orioren aldekoak Euskal Herriko herri guztieta daude, eta hori ben- taja bat da. Oriok egitura bat egina du. San Pedrorekin izan dituen hikamika horiek, herriz, huskeria bat iruditzen zaizkit, orain arte ontzi ja guztiak han egiten ziren, eta horrek aginte haundia ematen zien, eta hori orain puskatu egin da. Oriotarrak ondo ari dira, serio.

NORTASUN AGIRIA

- Hernaniko futbol taldea bigarren B mailara igo zuen entrenatziale zegoela. ● Uko egin zion Espanako selekziora joateari jubiletan. ● Es- kubaloian Txiki Benegas eta Juanjo Villarrealen jokatu zuen. ● ARGIA eta EGUNKARIaren sortzaileetako. ● ELTZEGOR musika taldeko abeslaria. ● Urruñatik Paris eta Bruxelasera dabil lanean, informatikaren alorrean. ● Bere familiko gehienak bezela egoskorra omen da.

K.: Multa bat jarri zioten Oriori 'kartzelak apurtu' zioen pankarta bat ateratzeagatik, eta herrian batzuk ez daude ados Kortak hartutako erabaki horrekin...

X.: Beste bi ontzik ere ate- ra zituzten pankartak. Kirola eta politika ez direla nahastu behar esaten dute, baina horretan gezur haundia dabil; aurtengo Donostia klasikan ziklistak Aldaiaren alde sinatzen konbidatu-behartu zituzten. Etxabek ez zuen egin eta kristonak entzun behar izan zituen. Nik uste dut oriotarrek asmatu egin zutela herriaren errei- bindikazio horrekin bat egi- ten.

K.: Nola ikusten duzu Orio kanpotik begiratuta?

X.: Egia esan, ez naiz asko ibili han, azkeneko osaba Txokolateri bisita egitera zaharren egoitzan. Bainu lehen futbolera joan izan naiz infantilekin, eta Orioko mutilek aldage- lan dena erderaz egiten zu- ten, eta txikitian joaten nint- zenean inork ez zuen erde- raz egiten. Harrigarria eta penagarria iruditu zitzaidan. Herriaren martxa, piska bat, KARKARaren bidez segitu izan dut.

K.: Eta zer iritzidauka AR- GIAN eta EGUNKARIAN dabilen batek herriko prentsari buruz?

X.: Uste dut informazio lokalak sekulako garrantzia izango duela aurrerantzean. Nazioarteko eta lokala gel- dituko dira, tartekoa desa- gertu egingo da. Euskaldunok asmatzen badugu teknologia ondo erabilitzen eta behar bezalako sarea osatzen behe mailan, frantsesek eta espainolek ezingo gaituzte desagertarazi Europaren eraikuntza prozesutik.

BERTSOAK

Azaroa hilabete importantea izaten da mugimendu antimilitaristarentzat, soladuzkarako zozketak-eta egiten baitira. Gaiak aktualitate handia du eta are gehiago Orion, orain dela gutxi sortu baita Orioko Intsumiso Taldea. Gaiari lotuta, bertso hauek egin dizkigu Ibai Esoainek.

-1-

Nahiz ta legeak behartu
ukatzera ez koldartu
ejertzitoen estratejian
ez degu nahi sartu
zergatikan parte hartu
ez badegu nahi onartu
lehen gutxi dana zapaldu eta
lehen asko dana indartu.

-2-

Ejertzitoen itzala
legea bezain formala
denok dakigu zer ikasten dan
guk nahi ez bezala
etsaia ikusi hala
lurperatu behar dala
gero gainera esaten dute
pakezaleak dirala.

-3-

Sarri errepresioa
ertzaiztaren sozioa
eskatzen degu ejertzitoen
abolizioa
nahiz ta sortu sesioa
gora intsumisioa
ertzainen porrak ez du hausiko
herriaren desioa.

-4-

Kartzeleratu batetik
dispertsioa bestetik
beldurra sartu nahiean dabiliz
pentsatu aurretik
segi oraingo bidetik
honek ez du beste bueltik
gure burua maite behar degu
soldaduzkaren gainetik.

-5-

Zein amets inuzentzia
konformistak izatea
hirugarrenengo gradua dago
arriskuz betea
soilik gauez joatea
plantea eta plantea
delito gisa jotzen dan arten
intsumiso izatea.

-6-

Etxen ez daukate garbi
entzun izan degu sarri
norberak hala pentsatzen badu
zertan egon larri
mugimenduaren berri
jakin nahi dunan pozgarri
Orion bada talde bat eta
hartu-emanetan jarri.

DORRONSORO

Janaridenda

Abeslari 3

83 09 37

EROSLE

AUTOZERBITZUA

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

13 30 14



ARGAZKI FRANKEEFIAK

tuberno

Ibaiztxo, 2 - tel. 83 26 73 - 208 10 CRTV

Sarikola

Bide nagusitik ikusten dena baino askoz ere gehiago da Sarikola. Bertaraino inoiz ailegatu ez eta harrituta egon ginen Ovidio eta Teresaren esplikazioak aditzen eta, batez ere, kamoitik ikusten ez diren edifikazioei-eta begira.

EBA GAZTAÑAZPI
JABIER ZABAleta

Sarikola—Ovidioren esanetan Sarriko-Ola behar luke idatzita, baserriaren izena Saria haita—Orioko bailara importanteenetako bat izanada, orain gezurra badirudi ere. Donostiako bidearen ondo-ondoan dago baina bidetik apena antzeman daitzke Sarikolak, hain aspaldi ez dela, izan zuen garantziaren arrastoak.

'Hemen espartzu-fabrika zegoenean 62 lagun etortzen ziren hona lanera eta asko eta asko bertan bizi ziren gainera, Vitoriano Zelaiak, fabrikako nagusiak, langileentzat egindako etxe batuetan. 19 familia ere bizi zitzen da hemen' esaten digu Ovidiok eta tonuan penabantzuak igartzen zaizkio.

Ovidio Gorrotxategi eta Teresa Arxonobieta senaremaizeak bizi dira orain baserrian, M. Carmen alabarekin. Iñaki seme gaztea automobil-istripu batean hil zenetik, hirurak bakarrik dira

eta ez dute ikusten baserriko martxari segitzeko modurik. Aspalditxo utzita dituzte haundiak-eta.

Gaur egun, ez da beste inor bizi auzoan eta inguruari ez zaizkio garai bateko dizdiraren arrastoak baizik geratzen; etxe erori batzuk, alazaren izandako nabe handi zahartuak, aspaldiko burdinola eta espartzu-fabrikan hondakinak, gu bezala inoiz hona ailegatu gabekoentzat harrigarriak egiten direnak, beren handitasunean.

Sariako ola

Saria baserriak 300 bat urte dituela esan digu Ovidiok; behintzat hori dela burdinola zaharra aztertzen maiz etortzen diren 'arkeologo-edo' gazteek esaten dutena.

Askok bestela uste badu ere, ez da espartzu-fabrika

izan Sarikolari bere izena eman diona, burdinola zaharra baizik, fabrika askoz beranduagokoa baita. Fabrikan garairik onenetan, gerra ondorengotan, inguru-tako jende askok egiten zuen lan bertan: Orio, Aginaga, San Esteban eta Igeldo inguruko baserritarraak ziren, gehienbat, hango langileak. Sakuak egiteko telia eta al-pargata-zolatarako espartzu-egiten ziren batez ere. Langileen umenak eskola bat ere bazegoen eta han aritzen zen Anttoni Aranburu zesterarra, sasiko maistra.

Erromeriak

Oso famatuak ziren Sarikolako errromeriak. Tresak esan digunez 'Jende-pilak etortzen ziren hemengo errromerietara: Orioko kaltetar eta inguruo baserritar askok jotzen zuen hona igandeetan. 'Filarmonika'

jotzena etortzen zirenak, berri, guk ezagutu ditugu batzuk: Sarobeko Josemari Peña, Batista Oliden, Eduardo Elizondo... Hemen jendea gutxitzen hasi zenean, Bentara pasa zen erromeria hura.'

Auzoa gainbehera

Auzoa galtzea ekarri zuen ezberdina bat-batean etorri zen, Ovidiok ondo gogoan dauka: '56an hondatu zen fabrika. Gau batean gertutako lur-jauzi batek zapaldu zuen fabrikaren erdia eta, orduan, Zelaiak bertan behera utzi zuen. Mutrikun bazuen beste fabrika bat eta han eskaín zien lana hemengo enplegatuei. Horrela hasi zen gainbehera: pixkana-pixkana bazter hauetako jendez hustutzen joan ziren eta, lehenbizi familia bat, gero bestea... azkenean gu bakarrik geratu arte.'



jaiotakoak

Jon Ruiz Sarasua, irailaren 22an

Karla Fernández de Betoño Orbañanos, urriaren 2an

Mikel Elustondo Azkue, urriaren 5ean

Aian

Marianne Eizagirre Agirretxe, urriaren 7an

ezkondutakoak

Francisco Javier Tamayo Martín eta M. Escolastica Bravo Barrera, urriaren 14an

Joseba Koldo Murgiondo Galdona eta M. Jose Lizaso Azurmendi, urriaren 21ean

Jose Luis Etxamendi Martín eta Rosa M. Velez Cortés, urriaren 21ean

hildakoak

Azkén hilabete honetan ez da inor hil

zorionak**Gazte Festa posible egin zuten guztiel**

Euskaraz Gazte batzordeak aurten antolatutako Gazte Festa 95 izeneko festa-eguna benetan bikaina izan zen eta hori horrela izan ahal izateko jende askoren laguntza eta partehartzea ezinbestekoa izan zen.

Egun horretan modu batean edo bestean parte hartu zuten guzti-guztiei gure zorionik beroena.

zoriotxarrak***Moto zaratatsuei eta bandoetan esandakoa betetzen ez dutenei***

Eguraldi ona dela-eta badirudi motorzaleei motoz paseatzeko gogoa areagotu egiten zaiela, baina zoritxarrez bere burua nabarmendu nahi edo, kristoren zarata ateratzen dute.

Udalak kaleratutako bando batean hori ez zela onartuko esaten zen, baina ez dirudi inor ezer egiten ari denik hori konpontzeko.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

Iturbide 11, Tfnoa: 83 17 74

daddy

BAKERO, NIKI,

KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

LIZASO
ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ▶ 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 ▶ 13 33 01

ITURAIN
okindegia

Aritzaga Plaza ▶ 83 08 28

ertza

Telefona: 83 09 29

Orain dela 25 urte...

Udako giroa bukatu, eta udararekin batera estropadak, baina Udal plenoak TVErí eskerrak ematea erabaki zuen Kontxako bigarren igandeko estropada erretransmitzeagatik.

Orain bezalaxe neguko martxa hasi zen:

✓ Arrantzaleek atunaren kostera bukatu eta aurreko urteetan bezala bidaia bat egin zuten. Spainiako hegoaldera, Granada, Malaga ... bisitatuz.

✓ Rosarioko Amabirjinaren eguna ospatu zen ohiko meza eta prozesioarekin.

Giro txarrak zinemara joateko gogoa areagotzen du, eta pelikula hauek ikusteko aukera izan zuten Leundarenera joan zirenek: "Hola señor Dios", "El escuadrón de la muerte", "Vive como quieras", "El retorno de Maciste" eta "La muerte llama a la puerta".

Orain dela 25 urteko Kolon-Txiki tabernako prezio zerrenda aurkitu dugu eta bitxikeria moduan aldameneko kuadroan orduko eta oraingo prezioak jartzea pentsatu dugu.

Zerrendak prezioak konparatzeko eta ohituren aldaketa ikusteko balio du. Orain ia hartzen ez direnak daude (porroia, pontxea...) eta bestetik orain asko hartzen diren edarien prezioak ez dira azaltzen, whiskyarena esate baterako.

	1970	1995
Txikitoa	1	35
Mostoa	1	80
Sagardo botila	12	325
Porroia	3	-
Txakoli botila	25	600
Bermuta	6	175
Biterra	12	175
Anisa	6	200
Likoreak	9	350
Pontxea	7	-
Cognac-a	6	200
Insuperable	15	240
MG ginebra	7	200
Rona	7	250
Konbinatuak	9	350
Champagne botila	100	1300
Garagardo txikia	6	160
Garagardo handia	10	225
Refreskoak	7	175
Batidoak	8	175
Kafe hutsa eta ebakia	5	115
Kafesnea	5	130
Infusioak	5	130
Pintxoak	2	110
Legatza bokadiloa	18	300
Xerra bokadiloa	25	400
Txorizo bokadiloa	14	300

HIZKI ZOPA

K	E	I	R	T	B	A	A	N	B	S	E	W	I	O
M	G	N	I	R	A	G	N	A	D	R	U	N	R	T
N	I	F	O	L	A	I	Z	O	L	A	B	H	R	N
X	Z	R	N	Z	N	K	J	N	G	H	Y	T	E	X
S	A	R	A	S	U	A	B	N	I	Y	T	F	X	D
M	L	K	H	L	C	F	T	R	K	K	O	R	T	A
B	A	A	N	E	L	E	X	T	I	M	D	F	L	P
M	K	A	I	R	R	E	B	E	X	T	E	B	A	P
B	N	J	G	T	R	E	S	D	T	B	J	I	K	O

Ale honetan Orioko hamar patroiren izenak aurkitu behar dituzue.

Aurreko aleko baporeen izenak hauek ziren: San Juan, San Antonio, Zeruko Ama, San Luis, Monegros, Aita Guria, San Martín, Ave María, Gure Naia, eta Villa Real.

nire hometan

Aiako hirigune zaharra

Orain dela egun batzuk Udalk deialdi bat egin zuen bilera batera deituz. Zoritzarrez ez nuen joasterik izan, baina horri buruz hitz egitea ausartuko naiz hala eta guztiz ere. Alde batetik, bertan entzundako zenbait iritzi jaso ditudalako eta, beste alde batetik, irakurri berria dudalako hirigune zaharraren birgainkuntzarako plan bereziaren aurrerakina.

Piagintza hau egiteko garaien ez dira hirigintza datuak bakarrik ikusi, herriaren gizarte azterketa bat ere egin da. Hala, 1988-93 urteen artean izandako migrazioa positibotzat jo daiteke gure kaskoan. Itxura denez, normalean kasko historikoan adineko jendea geratzen da, ingurua zabarkerian erortzen joaten da eta jende kopuruua murriztu egin da auzoetan gorantz doan bitartean. Baina Aiañ alderantziz gertatzen da eta ez dirudi hau aldatuko denik, epe motzean behintzat. Are gehiago, etxe berrak ere egin direnez eta, gehien bat, jende gaztea bizi denez bertan, etorkizunean jende kopuruak gorantz egingo luke.

Beste irizpide batzuk ere kontutan hartu dira, eta ekonomia da horietako bat. Lan honek dioenez, %20 kaskoko etxeetan bakarrik izango litzateke egokiagoa bota eta berria egitea daudenak txukundu eta hobetzea baino. Gauzak horrela, ikerketa honek proposatzen dituen helburuen artean hauek aipatzen dira: etxebizitzak egokitu eta hobetzea (ahul den neurrian alferrikako aldaketak galeraziz), lehen zuten erabilpena galdu duten etxeen irtenbide berri eta errentagarria bilatzea, leku publikoak hobetu eta birmoldatzea, kaskoaren morfologi historikoa babestea eta kasko historikoaren barruan dauden lantokiak mantentzea; osasun, edo soinu arazorik edo besteren bat sortzen ez bida.

Guzti honetaz, planoak aurtean zirela eta adibide ugarirekin hitz egin zen bilera horretan. Jende asko bildu zen eta hori izan zen behar bida berrikin onena. Piagintza hauek onak izan daitezke astakeria gehiago ez egiteko eta aurrera begira egiten diren berrikuntzetan edota egokitzeko lanetan irizpide garbia egon dadin. Horregatik, jendeak parte hartzea eta eztabaida sortzea positiboa da, azken finean guztiak helburuak berdina izan behar lukeelako; gure herria (kaskoa kasu honetan) bizirik eta itxaropena ikustea eta etorkizunetan, baina oinarri historikoa, urbanistikoa eta estetikoari eutsiz.

● EII LASA ●

KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



Mari Jose Urkizu

Orain dela lau urte etorri ninzen Alemaniara bertako hizkuntza ikasteko asmoz eta egunen batean itzultzeko asmoa daukat. Printzipioz Gabonetan han egotea espero dut.

Bonn-en bizi naiz, hiri txikia, lasaia eta oso polita. Ingurua ikusgarria da eta oso paseo politak ditu. Nahiz eta oso hiri handia ez izan, gobernuaren egoitza da, beraz ministerioak, enbajadak eta abar bertan daude eta horrek hiri handi baten itxura ematen dio. Urtean zehar eskaintza kultural ugari izaten da: erakusketa, operak... eta udan, batez ere, konzertu asko daude plaza nagusian eta parkean.

Hemengo bizimodua ezberdinan izan arren moldatzea ez zait zaila egin, nahiz eta hasieran zailtasunak izan hizkuntzarekin. Dena den familia eta hango giroaren falta somatzen dut.

Alemaniarrei buruz hitz egiten badut ziur aski betiko topikoak esango ditut, baina uste

dut ez dagoela deskribatzeko beste modurik: langileak, metodikoak, fidatzekoak, edukatuak eta musika eta literaturazaleak dira. Aisialdia ondo aprobetxatzen dute, eta oporretan kanpora joatea gustatzen zaie. Hau guztia alde positiboa da, baina beste alde batetik, umore "arraroa" dute eta garrantzi handia ematen diote diplomak, agiriak eta koxte eta etxe handiak izateari eta baita karrera egiteari ere.

Azpimarragarria iruditzen zaidan beste puntu bat ingurugiroari ematen dioten garrantzia da.

Gu askoz zaratatsuagoak gara, hemengo jaiek ez dute zer ikusirik hangoekin. Harremanei dagokienez ez dira familiarteko bilera handiak egitearen aldekoak, eta senide, bizilagun eta lankideen arteko harremana askoz hotzagoa da.

Eguneko minutu guztiak zerbaite "produktiboa" egiten pasa behar dute.

Lorazaintza: udazkeneko eginbeharrak

*Nire lantokitik,
Pagoetako parkearen
bihotzean dagoen
Iturrarango lorategitik,
udazkena pribilejiatuek
bezala miretsi dezaket.*

JOSE ALMANDOZ

Udazkenean kolorez betea ageri dira zuhaitz askoren (Gingko, Liquidambar, Nyssa, Rhus...) hostoak. Beste hainbat landare, berriz, oraintxe ari dira lorazten, esate baterako Tibouchina —lore more ikusgarriak dituena— Salbia ezberdinak eta abar. Bitartean, lorategietako sagarrondoak fruitu txikiez betetzen ari dira inguruari kolorea erantsiz.

Iturrarango parkean zuhaitz eta zuhaiska guztiek txartel bat daukate bere izena eta jatorria aipatuz. Hainbeste landare dagonez, beti aurki dezakegu bat beste guztien gainetik nabarmenzen dena. Urteko edozein garairako balio du afirmazio horrek baina, hala ere, udazkena da Iturrarango edertasunaz gozatzeko urtarrik aproposena.

Ezin ditut ulertu udazkenu urtarro tristea dela esaten dutenak. Niretzat magiaz beteta dago. Udazkena oso momentu garrantzitsua da landareentzat, negurako prestatzeko garaia delako. Hosto galkorra duten arbolek gorri, laranja eta horiaren espektakulua oparitzen dugu.

Etxeko loreak udazkenean

Baina udazkena ez da lorategian geratzen, etxeen ere sartu egiten da. Etxe barruko landareek antzeman egiten dute egunak laburtu egiten direla eta eguzkiak indarra galtzen duela. Hazkunde makaldu egiten da eta negu garaia pasatzeko prestatzen hasten dira. Horregatik arreta izan behar da gutxiago ureztatu eta ongarritzeko ordun. Lore mota hauek askotan ur gehiegi botatzen zaizlako galdu egiten dira, neguan gehienbat.

Udarai balkoian utzi ditugun barruko lore horiek erretiratzeko garaia iritsi da, gauean hotza egiten baitu. Etxeko lore guztiei pasada bat eman beharko diegu: beharrezkoa dutenei zuzen mantentzeko makilak jarri etabustitako esponjabathos-

toetatik pasa, garbitu armasa hobeto hartzeko eta argia aprobetatzeko. Lorontziz aldatzeko hobe da udaberri-ra arte itxarotea.

Bulboak aldatzeko garaia


Gogoratu behar da orain dela momentua udaberrian loratuko diren bulboak (tulipanak, lilipak, jazintoak eta Holandatik datozen hainbat lore) aldatzeko. Hazidendean eta hipermerkatuetan bulboak salgai daude, baina argi ibili kalitatea eta prezioak asko aldatzen baitira leku batetik bestera. Garrantzitsua da bulbo sendoak cros-tea, azal garbikoak eta zauririk gabekoak, lizun edo beste gaitzik ez dutenak. Bulboak neurtzeko erabiltzen den neurria kalibrea da, eta normalean diametroa zentri-

metotan adierazten da. Zenbat eta kalibre handia goa orduan eta lore handia goa.

Udaberriko bulbo guztiak landare errazak dira, landatzeko garaian espezie bakotzak behar duen sakontasuna eta elkarren arieko tarte kontutan hartzen badugu. Gure lurra emaitzarik oneña ematen duena aukeratu beharko banu ez nuke bi al-diz pentsatuko: gero eta gehiago eta indartsuago loratzen den lilipa. Zoragarria da eta oso merkeu, aurten 45 pezetatan dago unitatea.

Lehenengo izozteak iritsi arte baliteke udako alegríak, petuniak, salbiak, age-ratoak eta abar ondo egotea, baina neguari kolore pixka bat emateko zer jarri dezake-gun pentsatzen hasteko momentua da. Normalena hain arruntak diren udaberriak, margarita bikoitzak eta urtarro hotzko nagusia den pen-

tsamendua aukeratzea da. Baina cyclamen, azaleak edo txilarrekin elkar ditzakegu, gutxiago erabil-tzen diren arren kolorea izaten baitute neguan eta kanpoan ere indartzen baitira. Cyclamen garaiko lorea da, txilarra eta azalea, berriz, ondo ureztatuz gero urte batetik bestera ondo mantenduko diren zuhaiskak dira. Garrantzitsua da kontraste handiko lorea ez elkartzea. Garaiko landare eta zuhaisken artean garaiz loratzen diren bulboak aldatzen baditugu —muskariz, crocus, lilipak edo tulipan txikiak— negubukacra alai eta koloretsuaz gozatu ahal izango dugu.



Lilipa, gero eta gehiago eta indartsuago loratzen den lorea



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Argazki hau 1975ean egina da. Bertan azaltzen diren haurrek Patxi Olidenekin zebiltzan musika ikasten. Orain hogeita hamar bat urte dauzkate. Argazkian dauden ume guztien izen abizenak gehiegi litzateke, beraz lehenengo leerroan dauden hamabi haur horietako zortziren izen abizenak eman behar dituzue.

Bigarren galdera: Norekin jokatu zuen Xalbardinek eskubaloian?

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afaria Segia Jatetxean izango da.

Erantzunak azaroaren 20rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Iñaxio Unanue izan zen. Hau zen eman beharreko erantzuna: Domongo Mitxelena, Inazioa Sarasua, Jose Mari Urdangarin eta Claudio Etxeberria.

Bigarren galderaren erantzuna: Oriok hamabi bandera irabazi ditu aurtengo denboraldian.

SECA JATETXEA

83 07 16

gaztefesta '95

Eskerrikasko!

Euskaraz Gazte batzordeak eskerrak eman nahi
dizkizue Gazte Festaren prestaketa lan laguntzaeman
zenuten herri targuzti-guztiei, zuen aportaziorik
gabe ezinezkoa izango baitzen festa-egun hori
arrakastaz antolatzea.

Euskaraz Gazte batzordea

TXOMIN
arrayaindegia

Tlfnoa: 83 27 47



iTZiAR
Kirolak

Tlfnoa: 83 31 03

Gure
herriko
garagardoa

ALUYOLA, S.L.

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,
BAINU MANPARAK

P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA

KOLORE AUKERA UGARIA

Fatima Azpiroz Ibarreta

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefona: 36 22 77

GURE TXOKO
TABERNIA

ARITZAGA KALEA



ORTZAIZKA


JATETXEA

- * Bataioak * Despedidak
- * Jaunartzeak * Ezkontzak

Tlfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

gazte festa '95

URRIAK 29
ORION
Antilla inguruari



Euskara, bihotzetik ahora